

AURKEZPENA

Denok badugu lagun hurkoren bat aho-zabalka eta nagiak ateratzen dabilena sarritan. Ohikotzat hartzen dugu gure egunerokoan dakusagulako, baina benetan arazo larri bat dela ba al dakigu? Egia esan askok badakigu lo egitea funtsezkoa dela, baina oinarrizko ordu batzuk lo egitea ezinbestekoa dela maiz ahazten zaigu; izan ere, ez da gure lehentasun nagusia izaten eginkizunez beteta gaude eta.

Gure gizartean gero eta gehiagok ditu lo arazoak, hainbat faktoreen ondorioz. Teknologia izugarrizko garapena izan du azken urteotan eta mugikorrek itsututa daudenen kopurua handitzen ari da. Hori dela eta, ondo lo egiten laguntzen diguten jarduerak, kirola esaterako, egiteko maiztasuna galdu egiten da. Bestalde, lan giroan ere oso ohikoa da loezina, enpresek langileak asko behartu eta ustiatzen dituzte gehienetan, eta horrek sortarazi dezakeen estresak ere lo arazoak ekar ditzake.

Milaka kausek ekar diezagukete insomioa, eta gure helburu nagusia gure bezeroei loaldi goxo bat lortzen laguntzea litzateke. Horretarako, manta termino eta pisudun bat sortu dugu.

4 pertsonako talde bat gara eta arazo honi aurre egin nahi diogu elkarlanean arituz eta teknologia berriak aplikatuz.